

6. Gernikako Arbola: bere balizko esanahia eta sinbologia

Agurtza eta Aintzane Lazkano



Agurtza Lazkano



Aintzane Lazkano

6.1. Nor

Aintzane eta Agurtza Lazkano euskeraren jatorriaren inguruan aspaldi kezkatuta egon dira eta Euskeraren Jatorriaren Biltzarretan parte hartzeaz gain, hainbat proposamen etimologiko asko egin dute.

6.2. Laburpena / Abstrac / Resumen

a) Laburpena

Ezaguna dugu Gernikako Aretxa, Bizkaia askearen batzarleku 1876 arte, baina, aretxak izan, Euskal Herri osoan izan ditugu: Aiaran, Uztaritzen, Maulen, Aramaion...

Zuhaitzak kultura gehienetan “*Sakratuak*” dira, eta gurean garrantzitsuak Aretxa, Urkia eta Lizarra. Baina haritza berezia zen: etxe, langailu, zur, su eta ezkur uruneko iturri. **Aritzeko** eta biziaren **haria** jarraitzeko ezinbestekoa, “*Mari*” eta “*Ahari*” energiekin lotuz. **HARI** erroak **AR** ahoskia eta zentzua du (**ur-ek** emearena du). Eta “**ara**” erroaren inguruan ziren **aratuzteak**, mendietara **aragia** erretzera, **Arangio** edo **Aralar** sakratuetara.

Guretik kanpo, zeltek zuhaitzei egotzitako generoekin bat datozte gure zuhaitz izenetan *ari* eta *ur* ahoskiak. Grekoetan dugu **ARIS**tócrata hitza; Aristóteles, Aristófanes edo Arístides; eta **Ariadnak** Teseori emaniko **Haribila**.

Erromantzeetan, **haria** eta seme-alabak etimologikoki lotuak egon litezke. Asian, Arya proto-indo-iranoien etnia izena, gerora noblezia, zintzotasun eta espiritualtasuna. Pazifikoan **ARI**Ki, **AL**i edo **AR**i, maila handiko kidea. Akaso iraganeko oihartzun edo erlazio amankomunen zantzua?

b) Abstrac

It is well known that the Gernika's Oak was the meeting place for the free Biscay until 1876, but in the Basque Country we have also taken others at Aiaran, Uztaritz, Mauleon, Aramaio ...

Trees are sacred in most cultures and in our, the oak, birch and ash. But Oak is special as a source of acorns for flour, wood, tools and housing. Called "Haritza" in Euskera, the morpheme "ari" is found in Basque language names in the "activity" and "thread" of life, hard in "Mari" and in the name of "ram". The roots of "hari", the syllable "ar" has sense (ur -ek is female). And about the particle "ara" it is located at carnivals where meat was roasting on the mountain and in Aralar Arangio, which and sacred.

Out of our culture, gender assigned to the Celts to trees coincides with ari and ur syllables of our trees. Greek origin have voices like "aristocrat" and names like Aristotle, Aristophanes or Aristides and Ariadne who received de clew from Theseus (haribila).

It is possible that "haria" from romances and its derivatives are also etymologically related as much as the ethnic proto Indo Iranian "Arya", the future, sincerity and spirituality. In the Pacific, Ariki, Ali'i or higher Ari'i words for friendship, maybe the echo or the cry of a common origin?

c) Resumen

Conocemos el Árbol de Gernika, lugar de juntas de la Bizkaia libre hasta 1876, pero estos lugares están esparcidos por todo el País Vasco: Ayala, Maule, Uztaritz, Aramaio...

Los árboles son sagrados en muchas culturas, y en nuestro caso los robles, abedules y fresnos. Especialmente, los robles procuraban material para construcción, herramientas, madera, fuego y harina de bellota; y eran esenciales por tanto para continuar el **hari** o hilo de la vida, conectándonos con **Mari** y **Ahari** o energías de la existencia.

Hari además contiene a **ar**, faceta masculina de estas energías (siendo **ur** la faceta femenina). Y también **ara**, presente en los **aratusteak** en que íbamos a quemar **aragia** o carne a lugares sagrados como **Arangio** o **Aralar**. Hacia afuera, los nombres vascos con **ari** o **ur** se corresponden con los géneros que los celtas atribuían a los árboles. Los griegos usaban el término **aristócrata** y los particulares **Aristóteles**, **Aristófanes** o **Arístides**; además de que **Ariadna** dio a Teseo el **haribila** o madeja.

En los idiomas romances, la familia y la descendencia están etimológicamente relacionados con **hari** o hilo. En Asia, los proto-indo-iranios se denominaban **Arya**, que en sus religiones posteriores se mantendría como nobleza, sinceridad y espiritualidad. Y en el Pacífico, **ariki**, **ali'i** o **ari'i**, era miembro de alto nivel. ¿Tal vez ecos de pasados comunes o de antiguas relaciones?

6.3. Txostena / Communication / Ponencia

a) Arbolaren eta batzar etxearen historia laburra

Bizkaiko herrien batzarleku izan da Gernika mendeetan zehar eta gure Aretx ospetsuaren ondoan batzen ziren herri horietako ordezkariak. Batzarrok 1876 arte iraun zuten, urte horretan kendu zizkiguten eta foruak.

1979. urtean berreskuratu egin ziren batzar nagusiak, ez ordea, foruak, hau da Bizkaiak bere buruari emandako berariazko legeak, ohituretan eta ekanduetan oinarritutakoak.

Bizkaiko jaunek herriaren agintea eduki nahi bazuten, zin egin behar zituzten foruak Aretxaren aurrean.

Batzar etxea eta Aretxa bera eskutik doaz. Lehena Bizkaiko erakunderik gorenaren egoitza delako eta bigarrena Euskal Herri guztiko herrialdeen topagune delako gaur egun.

Erdi Aroan Antiguako Andra Mariri eskainitako basiliza zegoen Aretxaren ondoan, bertan batzarrak hasi baino lehen elizkizunak egiten ziren eta Bizkaiko Jaunek foru-zina egiteko ere erabiltzen zen.

Denborak aurrera egin ahala, Batzarrak ermita barruan egiten hasi ziren. 1826. urtetik aurrera, Erakundearen beharrianak hobeto betetzeko etxe egokiagoa behar zela eta, ermita bota zuten eta gaur egun dagoen etxea eraiki.

Eraikuntza berri hau Eliza eta Lege-batzarra da aldi berean eta nahiz eta gaur egun arlo politikoa izan eginkizun nagusia, bertan jarraitzen dute aldareak eta ura bedeinkatzeko harriek.

Aretxaren historiari buruz esan beharra dago gaur egun dagoen Aretxa, 2005.ean sartu zela, ordurako 19 urte zituela. Horren aurrekoak Aretx Zaharra eta Aretx Aita dira. Aurrenekoa, hau da zaharrena, harrizko zutabez inguratuta dago, eta bigarrena horren oinordekoa izan zena 1860.ean sartu zen tribunaren aurrealdean 2004. urtean ihartu egin zen arte. Beraz, mantentzen da oraindik bizirik arbola hauek daukaten esangura sinbolikoa.

Gernikan gaudela eta, beharrezkoa zen aurkezpen hau egitea batzarren inguruan daukan garrantziagatik.



b) Haritzak batzar lekua Euskal Herrian

Batzarrak herritarren arazoak eta gai politikoak eztabaidatzeko bilketak ziren, zuhaitzen inguruan egiten ziren, kasu gehienetan harizpetan, eta bertan etxe bakoitzak ordezkapen zuzena zeukan.

Dakigunaren arabera batzarretan biltzea, oso antzinako ohitura omen da Euskal Herrian, Erromatar inperio aurrekoa gutxienez. Haren gainbehera izan eta gero gizartearentzat izugarritzko aldaketa ekarri izan dituzten aro politiko ezberdinak izan dira Europa osoan. Baina nahiz eta historian zehar aldaketa sozial eta politiko horiek gure eremu historikoan izan, Euskal Herriak gaitasun handia izan du bere eredu politiko hau neurri batean edo bestean mantentzeko eta gaur egungo batzar nagusiek eta foru aldundiek dituzten konpetentziak, orduko eskualdeko batzarrak zituztenen antzekoak dira.

Legeak arautzeko modu hau oso ezberdina da gaur egun ezagutzen dugunarekin alderatzen badugu, oinarrian ere errekursoak kudeatzeko modua beste era batekoa zen eta nahiz eta

etxe bakoitzak bere eremu pribatuak izan, gainontzeko guztiak komunalak ziren eta denen artean ustiatzen ziren. Hortaz, aro politikoak aldatu izan zirenean eta jabetza pribatuak nagusitzen hasi zirenean, jauntxoak ere, lege hauek zuten indarra zela eta, zin egitera behartuak izan ziren, Gaztelako erregeak barne.



c) Bittor Kapanaga: arbola sakratuak

Hemen Gernikan ikusten den moduan ere, batzarrak zuhaitzaren inguruan egiten ziren, zuhaitzek eurek garrantzi handia izan dutelako gizartearentzat, kultura askotan “*Sakratuak*” izan baitira eta gurean ere horrela izan da.

Euskal Herrian, hain zuzen ere, hiru izan dira garrantzitsuenak Kapanagaren esanetan, Aretxa, Urkia eta Lizarra eta haritzari buruz honako hau esan zigun berak:

Aritza (Areitza, Aretxa) dugu guztietan lehena eta garrantzitsuena. Euskal Herriaren sinboloa izateraino. Eta hau ez da Gernikako Arbolaren eraginez sortutako ezer. Gernikakoa, Gaztelako erregeek bere azpian zina egiten zutelako eta Iparragirrek kantua egin zuelako dugu ospetsua. Baina beste eskualde askotan ere baditugu horren mailako haritzak: Aiaran, Gerediagan (Durangaldekoa), Abellanedan, Bizkaiganean (guztiok Bizkaian). Beste herrialdetan ere bai, Uztaritzekoa Lapurdin, Maulen, Ziburun, Nafarroan ere entzuna dut bi edo hiru bazirela, Arriagakoa Araban, Aramaion ere izan omen zen Barajuenen, zein motatako zuhaitza zen argi ez badakigu ere.

Aritzak, herritasuna, askatasuna, zuzentasuna, arauen nagusitasuna, hitz baten esateko, “*Euskaldun Herriaren izatea*” bera adierazten digu. Baita burujabetasun ustea ere. Lurralde bakoitzean bertako haritz aukeratuaren azpian egiten zituzten batzarrak, herriaren arazoak erabakitzeko batzarrak. Ekintzak arautzeko, epaiketak egiteko eta herriari dagozkion erabakiak hartzeko biltzarrak aritzaren azpian egin beharra zuten. Beraz, aritz azpian bere bizitza atontzen zuen herria genuen euskaldunen herria. Eta Euskal Herri bakoitzean, (Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa etab. oraintsukoak ditugu, mila urte ingurutik honakoak) bakoitzak bere aritz aukeratu izanen zuen (“sakratua” nolabait esateko) ditugun aztarnek erakusten digutenez.

Eta aritzaren sakratutasun hau, beste herrialde batzuetan ere ageri zaigu, Mediterraneoan zehar, arlo askotan gertatzen den eran. Egunen batean, herrialde horietako kultur aztarnen eta euskal kulturaren arteko eraketa bat ere egin beharko da, oraingo itsukeriak alde batera utziz. Orduan agertuko zaigu, bai hizkuntzetan eta bai bestelako aztarnetan ere, zibilizazio sakon eta hedatu baten hondarrak garela guztiok.

Zuhaitz sakratuak izateko ohitura hau, Egipton, Heladen, Indian eta Israelen ere bizi izan dute. (*Europar leku gehienetan ere*). Zuhaitz motak ez ziren berberak izango beti, milaka urtetan zehar gauza asko aldatzen delako. Baina Israelen esaterako, ospe handikoa izan da Sikem´eko aritza. Beronen azpian egin omen zuten Yahweh'k eta Abraham'ek bion arteko ituna. Arteak, eretzak, eta beste zuhaitz mota batzuk ere izaten zituzten sakratuak eta batzarlekuak. Sikem´eko hori ere, gur-lekua, batzarlekua eta opari egiteko lekua izaten omen zen.



Bittor Kapanaga

Eta zergatik aritza? esango du batek baino gehiagok, eta erantzuna betiko izango dugu: euskal munduko ezaugarriak behinena eta sakonena beti bat dugulako, logika. Gogoratu dezagun orain, aritzaren azpian edo atzean zer dagoen. Zuhaitz mota honek zer ematen zion gizakiari.

Eraikuntzak lan tresnak egiteko zura. Urte osoan sua egiteko egurra. Eta gari gutxi izaten zuten urteetan jateko ezkurra. Izan gogoan: oraingo altzairu, zementu, petrolio, gas eta guztiak batera baino gehiago. Ez da gero astoaren arrantza merkea bezalako zerbait. Beraz, zuhaitz sakratutzat hartzeko aski eta gehiago meritu bazuen gure aritzak.

Gogoan izan, oraingo gure hiriak (uriak) ere aritzez eraikiak ditugula bertako eraikuntza zaharretan. Hori egunero ikusten dugu, etxe zaharrak eraisten dituztenean.

d) ari- erroaren bila

Ba orain hausnartu dezagun Haritzaren inguruko beste zenbait ideia eta hizkuntza-kontu, horretarako "Hari"rekin hasiko gara:

Ohartu zaitezte Haritzak "hari" daukala bere barnean eta Haritik tiratuta honako hau ikusten dugu: badirudi, antzina, euskaldunak ezkurarekin egindako urunez elikatzen zirela neurri handi batean, hau da, oinarritzko elikagaia omen zen oraingo **gari** urunaren (**harina** gazteleraz) parekoa, hortaz, "*biziari eusteko euskerri garrantzitsua*", biziaren **haria** jarraitzeko ezinbestekoa behar bada, horregatik eramango luke gure ustez haritz hitzak **ari** bere barnean.

Eta gure haritzaren fruitua **ezkurra** denez gu ere nolabait Haritzaren fruituak/sem-alabak gara, berau jaten dugu eta. Horregatik ohartu zaitezte **euskaldun** hitzak eta **ezkur** hitzak **-zk** kontsonantez eraikitzen dutela euren izenak. Honekin lotuta aipatzekoa da gehienok dakigun bezela erromantze hizkuntza hauetan haria eta seme-alabak etimologikoki lotuta daudela, seme-alabak baitira bizitzaren hariari jarraitzen diotenak.

euskera	frantsesa	portuguesa	gaztelera	katalanera	galegoa
hari	fil	fio	hilo	fil	fio
seme-alaba	fils/fille	filho/filha	hijo/hija	fill/filla	fillo/filla

Guzti honekin honako hau dator bat:

Aria = raza, casta, linaje, ez dago esan beharrik haria jarraitzen dutenak, horregatik irun/hilar eta iraun/permanecer, durar eta baita ere:

Lino, liho, leinu = lino, linaje, línea

(lihozko ehuna, erderaz, tela de HILO da), A zelako lioa esango duzue honezkero!

Honako hau ere ez da makala: *Aotearoa*, Cook ugartean eta Paskua Ugartean, **ARI**Ki bat, maila handiko norbait omen da, **ARI**stokrata edo noblea. **AL**ki, Tokelau eta Tuvalun, **AL**i Hawaii eta Samoan eta **AR**i Sociedad Ugarteetan eta Tahitin. Horregatik baita ere **Jarioa** hitza, iturrietako, erreketako **ura dariola ...euria** eten gabe ...

Ario ospetsuen izena Sanskritoko Arya izenetik omen dator eta proto-indo-iranoiek ematen omen zieten izen hau heuren buruei, heuren etniari hain zuzen ere. Zoroastrismoan, Budismoan, Jainismoan, eta Hinduismoan hitz honek noblezia, zintzotasuna eta espiritualtasuna adierazten omen ditu.

ARIStócrata hitza Grekotik? Beharbada, baina gure uste apalez lehenago geure **HARITZ**etik, baita Aristoteles, Aristofanes, Aristides eta abar luze hori. Eta **Ariadna**? Ez al zion eman **Ariadnak** Teseori **Harilkatzen ari** zen **Haribila** laberintotik irtetzeko?

Eta **Haritzak HARI** badarama **AR** ere bai. Bitor Kapanagak honako hau esaten digu bere ERRO ETA GARA liburuan: **Ar** ahoskiak **arraren** edo artasunaren zentzua du bete-betean; eta **ur** ahoskiak **urruzarena** (emearena), beraz gure Haritzak artasuna zentzua omen dauka. Hau dela eta berehala agertzen zaigu **ari izan/aritu, ar/arra**, eragilea baita.

Elena **Percivaldik**, *Los celtas una civilización europea* liburuan hau esaten digu: “Los celtas asociaban los árboles con una esencia “Masculina” o “Femenina”.

Eta zenbait kasutan euskeran hau isladatzen da zeren eta adibidez Lizarrak eta **Haritzak** zeltentzako artasunaren esentzia zeukaten eta adibidez **urkiak** eta **hurritzak** urruza edo emearena.

Arbol de la Vida: Biziaren eta Bizitzaren arbola. Haritzak biziari eutsi baino lehen berau martxan jartzen du, esan dugun moduan **arra** baita (pentsatu behar dugu **AR**iren barruan “ar” dagoela, eragilea beraz, eta hau ari izan/ariturekin lotuta dago. Aritzea ..., hariari jarraitzea)

Hemen daukagu ba “*Bizitzaren Arbola*” ospetsua baina baita “*Biziarena*”, ez metaforikoki bakarrik fisikoki ere bai. “*Irauteko*” eta “*Iruteko*” bidea ematen diguna eta aldi berean “*elikatzen*” gaituena.

Bittor Kapanagaren euskaldunon erlijio zaharraren hausnarketan ere “**ara**” erroaren inguruan gauza asko esaten digu: **Aratuzteko** ospakizunen inguruan mendietara joaten zen **ara** egitera **arakiekien** (erregaiekin) sua egitera **arkumeak**, **aratak** (patak), **araxeak** (zeko gazteak) **arakeituta** (sacrifikatuta) euren **aragia** erretzera **Aramaio**, **Arangio**, **Aralar** eta abarreko leku sakratuetara.

Aretxa, **artea**, hau da **arboletatik** edo arbolen inguruan euskaldunen sakoneko ohiturak beti ere... Guzti honetan ere Gernikakoan ikusi dugun moduan bizikidetzarako legeak arautzeko ginkizunak eta erligioa eskutik doaz eta denak zuhaitzen inguruan.

Gure hariak “**Mari**” eta “**Ahariarekin**” lotuko gaitu baian hau beste baterako utziko dugu. Gauza mordo bat josi ahal da hariz, hau dena hariz josita dago eta “hariz josita” ere bai (erderaz cosido con hilo y repleto de hilo).

Honek gure arbolatik desbideratzen gaitu? Ez, Egitura baten sartuta dagoelako, corpus bat osatzen dutelako.